

**UDALBATZAK 2009KO EKAINAREN 26AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila bederatziko ekainaren hogeita seiko goizeko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
 - M^a del Mar CARRILLO GASCON
 - Silvia ASTORGA MARTINEZ
 - Jesus OFICIALDEGUI RUIZ
 - Joseba ECHARTE MARTIN
 - Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
 - Mikel DURAN GONZALO
 - Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
 - Luis Santiago ANGULO MARTIN
 - Agustina Ana CANO CEREIJO
 - Iñaki QUERALT COIRA
 - Gorka MAUDES MIGUELTORENA
 - Maite PEÑA LOPEZ
- (bilkuratik alde egin du Gai Zerrendako 4. puntuan)
- Venancio GRAVINA ESNAL
 - Jose Manuel FERRADAS FREIJO
 - Jose LEGORBURU AYESTARAN
 - M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
 - Joxe BURGOS VIÑARAS

Ez dira etorri baina ezinetorria adierazi dute Juan Carlos MURUA ROMA (Talde Mistoa) eta Lucia PERALTA RODRIGUEZ (PP) jaun-andreak.

Orobat bertan dago udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna (bilkuratik alde egin du Gai Zerrendako 5. puntuan).

Era berean, bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkaria.

1. Udalbatzak 2009ko otsailaren 27an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena bidezkoa bada.

Idazkariak 2009ko otsailaren 27an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurri ondoren.

Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

- Onartzea 2009ko otsailaren 27an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta.

2. Alkateak emaniko ebazpenen (662 zk.tik 844 zk.ra, biek barne), zinegotzi ordezkariak (738 zk.tik 902 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri ematea.

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (662 zk.tik 844 zk.ra, biek barne), zinegotzi ordezkariak (738 zk.tik 902 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri eman du.

* Angulo jaunak (Talde Mistoa) esan du 806 zk.ko ebazpenean, maiatzaren 29koa, Listorretara joaten den autobusa geldiarazteko erabakia hartzen da. Eurek erabaki hori nola hartu den jakin nahi dute, eta, ea ez zitekeen ordutegia murriztuta edo, zerbitzua ematen jarraitu.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) gogorazi du puntu hura ebazpenen berri emateko dela, akatsen bat egin den ikusteko, etab. Gaineratu du zergatia Galdera eta Eskarien puntuan egin behar duela.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Donostiako bigarren saihesbidea A-8 autobidearen lotura Errenteriako udal dermioetan egiterakoan Oiartzun ibai inguruaren paisaia berreskuratzeko eta integratzeko proiektua.

Aurrerakinak.

2009ko maiatzaren 13an, BIDEGIk (Azpiegituren Gipuzkoako Agentzia) aurkeztu zuen *Donostiako bigarren saihesbidea A-8 autobidearen lotura Errenteriako udal dermioetan egiterakoan Oiartzun ibai inguruaren paisaia berreskuratzeko eta integratzeko proiektua*, Prointec-ek egina 2009ko apirilean. Proiektu hori berrikusi zuen Udal Bulego Teknikoak 2009ko ekainaren 10ean.

Proiektu horren xedea –“Donostiako bigarren saihesbideak” eta “Hegoaldeko bide” deiturikoak egiteko obrek eragingo diotenez Oiartzun ibaiaren inguruari– hainbat jarduketa egitea da landare-belar eta paisai aldetik berreskuratzeko, hots, obrak direla eta, mugitutako lurrak ondo ipini, hala nola inguru hori osatzen duten elementu bakoitzaren inguruan

(Fanderiako bidegorria, "Villa M^a Luisa" parke botanikoa, Papresara doan ur-kanala) egin beharrekoa egiteko. Obra horien aurrekontua 150.695,73 €-koa da (BEZa barne).

Era berean, 2009ko ekainaren 4an, BIDEGIko (Azpiegituren Gipuzkoako Agentzia) zuzendari teknikoak *Donostiako bigarren saihebidia A-8 autobidearen lotura Erreterriako (Gipuzkoa) udal dermioetan egiterakoan Oiartzun ibai inguruaren paisaia berreskuratzeko eta integratzeko proiektua exekutatzeko hitzarmen-zirriborroa* aurkeztu zuen.

2009ko ekainaren 9an, Udal Bulego Teknikoko zuzendari Enrique Pontek proiektu horren aldeko txostena egin zuen.

2009ko ekainaren 9an, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak txosten juridikoa egin zuen.

Udal kontu-hartzaileak eginiko txostena ikusi dute.

Eta Hirigintza batzordeak eginiko proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) esan du, aurreko osoko bilkuran bezala, proposamena gaztelaniaz soilik jaso dutela. Orduan, berak gogoratu nahi du, nahiz eta orduan Euskara arduradunak konfiantzazko botoa emateko esan zuen, hainbeste aldiz eman dutenez, gehiago ezin dutela eman. Horregatik, prozedura-akats hori zuzentzen ez den bitartean, gaia mahai gainean uztea proposatzen dute.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) sentitzen duela, esan du. Gaineratu duenez, berak ez daki zeintzuk diren arrazoiak, ahaleginak egiten dituzte, Udalak dituen baliabide guztiekin, horrelakoak gerta ez daitezen, baina beste mila gauzari aurre egin behar izaten diotenez, hala nola gaiak aurrera ateratzeari, ezin izan dute egin. Proposamena, Hirigintza batzordean jakinarazi zuten moduan, BIDEGIrekin Donostiako bigarren saihebidia egiterakoan hondatu zutena konpontzeko da. Hala, BIDEGIin, bere kontuengatik, etenaldi bat eman denez, euren lehenbailehen onartzea komeni zaie. Amaitzeko, gaia mahai gainean uzteko proposamenak aurrera egingo balu, berari eztabaidatzea gustatuko litzaiokeela, esan du.

* Ferradas jaunak (EB-Berdeak) adierazi du, Talde Mistoko ordezkariak adierazi duen moduan, kontu hau, Alkateak gaia presazkoa dela esanez ematen duen erantzuna bezalaxe, behin eta berriz errepikatzen da. Berak ez du gai

hau ez dela presazkoa esango, baina, pentsatzen du gaizki egiten ari den zerbaitez erantzukizuna hartu beharko litzakeela, izan ere, ez baita lehenengo aldia gauza bera gertatzen dela.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, esanez, kontua ez dela gaizki egitea, baliabideak dituztenak dituztela baizik. Alegia, ez dela ez axolagabekeria ezta interes falta ere. Apika -dio- baliabide gehiago beharko zituzketen, baina ez dituzte. Bere aburuz euskara oso gai garrantzitsua da, baina garrantzitsuak dira, halaber, beste mila kontu, adibidez, Udalak funtzionatzea eta kontuak aurrera ateratzea. Ondoren, esan du prozedura bat jarraitu dela eta epeak betez joan direla. Gaineratu duenez, gaia ez da kaxoi batean ahaztuta egon eta bat-batean presazkotzat jo. Aitzitik, bere ibilbidea egin du, baina prozesuak, naiz bermekoak izan, geldoak dira, esan du.

* Alvarez de Eulate andreak (Talde Mistoa) esan du kontua ez dela axolagabekeria edo interes falta. Kontua da Udalak duen araudia ez duela betetzen. Beretzat euskara ez da gai garrantzitsua, baizik eta, hizkuntza ofiziala gaztelaniarekin batera. Bera asperturik dago UAOn 86. artikulua idatzizko dokumentu guztiak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egin behar direla errepikatzez. Eta hori ez da betetzen, gaineratu du. Horregatik, Gobernu Taldeak araudi hori betetzen ez duen bitartean, eurek behartuta daude errekursoak aurkeztera. Gaineratu duenez, azkeneko osoko bilkuran Euskarako ordezkariak berriro ikusi beharreko kontua zela esan zuen. Eurek konfiantzazko botoa delakoa eman zuten, alabaina, ondoko osoko bilkura honetan kontu berarekin egiten dute topo. Orduan, noiz arte jarraitu behar duten horrela, galdetu du. Lege betetzeaz ari dira hizketan, Gobernu Taldeak betetzeaz hainbestetan hitz egiten duenaz hain zuzen ere.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), berriro esan du, euskara sustatzearen alde ez dagoela Euskarako ordezkaria bakarrik, denak baizik. Baina milaka gai dituzte eta denei aurre egin behar diete. Eta eurek iristen diren lukuraino iristen dira. Norbait afera honekin baztertuta sentitzen bada, iruditzen zaion bezala joka dezala, baina gauza bat aurrera atera behar badute, ahal den moduan atera beharko dutela, uste du.

* Burgos jaunak (EA) adierazi du, nahiz eta bera bat datorren Talde Mistoko ordezkariak esan duenarekin, halaber ados dago aurreko osoko bilkuran esan zenarekin. Berak ere, Euskara Saileko langileei konfiantzazko botoa eman behar zaiela uste du. Gaineratu duenez, Euskararen azken batzordeetan langileek lan-ahalmenaren berri eman zuten eta egiten dutena baino gehiago ezin dutela egin, esan zuten. Berak ez du pentsatu nahi axolagabekeria edo euskararen aurkako jokabiderik izan denik, izan ere,

denek bai baitakite Euskara Saileko langileek duten borondatea eta egiten duten ahalegina Udaletxetik irteten diren dokumentu gehien-gehienak bi hizkuntzetan egoteko. Hori guztiagatik, berak langileek esandakoaren bidetik joko duela, gaineratu du.

* Cano andreak (Talde Mistoa) esan du –egin den aipamenagatik– eurek ez dutela inoiz zalantzan ipini Euskara arloko langileen profesionaltasuna. Eurek langile hauekiko konfiantza osoa dute, eta esan behar duten gauza bakarra zera da: ezin bada iritsi, beste neurri batzuk hartu beharko direla.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) esan du, gaia ez bada mahai gainean uzten, horrek euren jarrera baldintzatuko duela. Izan ere, batzordean aldeko bozka eman zuten eta orain ezin dute alde bozkatu.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Queralt jaunak (Talde Mistoa) gaia mahai gainean uzteko eginiko proposamena bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 7 botorekin (Talde Mistoa eta EAJ/PNV), 10 boto aurka (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, PP eta EA) eta 2 abstentzios (Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D U

- **Atzera botatzea** gaia mahai gainean uzteko proposamena.

Jarraian,

Hirigintza batzordearen proposamena bozkatu dute.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 14 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak, PP eta EA) aurkako boto 1 (Talde Mistoko Queralt jauna) eta 4 abstentzios (Talde Mistoa),

E R A B A K I D U

1. **Onartzea Donostiako bigarren saihebidia A-8 autobidearen lotura Erreterriako (Gipuzkoa) udal dermioetan egiterakoan Oiartzun ibai inguruaren paisaia berreskuratzeko eta integrazteko proiektua**, Prointec-ek egin 2009ko apirilean.

2. Alkatea **ahalmentzea** obra horiek exekutatzeko egin beharreko guztiak egiteko, Bidegirekin egin beharreko hitzarmena izenpetzea barne dela.

Une horretan bilkuratik alde egin du Peña andreak (EAJ/PNV).

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) proposatu du, presazko prozedura bidez ikusteko, Foru Aldundiaren enplegu-programa bat, hain zuzen, udalek, langabetuen arabera, 6 hileko behin-behineko kontratazioak egin ditzaten. Gaineratu duenez, Langileria eta Hirigintza Saila eta bera afera hori ikusten aritu dira, eta, Udaleko egoera ekonomikoa konplikatu denez, ondorioztatu dute oso baliabide mugatuak dituztela kontratatzeke eta beste edozein gastu egin ahal izateko. Horrez gain, kontuan hartu behar dute langileak kontratatzen badituzte, lana egin ahal izateko materiala ere ipini behar dutela. Gaineratu duenez, kontratatuko diren langileek baldintza batzuek bete behar dituzte, hala nola, langabezian egon, etab. Euren asmoa baldintza edo jarraibide horiek Langileria Sailak eta sindikatuen artean akordatzea da, beti ere, Udaleko berdintasun-plana edo beste edozein errespetatuz eta Foru Aldundiak bidalitako gidoiari jarraiki. Kontratuak OARSOALDEA Eskualdeko Garapen Agentziaren Enplegu Sailak egingo lituzke, euren aburuz Agentzia horren helburu argi bat enplegua sustatzea eta langabeziari irtenbideak aurkitzea delako. Adierazitako guztian oinarrituz, proposamen bat dute Gizarte Zerbitzuetako telefonogunerako langile bat kontratatzeke, lau lagun Loregintza eta Mendi Sailerako eta hiru lagun Hiri Mantenimendu Sailerako. Proposamena, kalkuluak eginda, egin dute, eta saiatu dira defizita ez gehitzen eta, aldi berean, ahalik eta kontrataziorik gehien egiten, gaineratu du.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) adierazi du eurek aurreko asteartean antzeko proposamen bat egin zutela Bozeramaileen Batzordean, eta Alkateak kontu hori ez zela osoko bilkuraren gaia esan zuen. Horregatik, bertan behera geratu zen euren proposamena, orain Alkate jaunak hona ekarri duenaren nahiko antzekoa zena. Ondorioz, pena ematen badio ere ezezkoa esatea -mamiarekin ados egon daitezkeelako-, Alkate jaunak baliatzen dituen prozedurak besteei ukatzen dizkielako, berak argitu beharko du zertaz aldatu den iritziz, gaineratu du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du proposamen hura Langileria Batzordea presaz deitzeko egiten zela.

* Queralt jaunak (Talde Mistoak) adierazi du eurek mozio bat hara eramateko aurkeztu zutela. Gainera, Bozeramaileen Batzordean aurkezten diren proposamenak osoko bilkurara eramateko egiten dira, esan du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) berriro esan du bera idatziak ikusten aritu dela, eta bertan, Giza Baliabide batzordea egiteko presazko deia egiten zela.

* Queralt jaunak (Talde Mistoak) esan du aurreneko proposamena mozio bat aurkezteko zela, hots, gaia hara eramateko betiko prozedura arrunta baliatuz. Gero, Alkateak ezetz esan zuenez, eurek beste proposamen bati eman zioten sarrera, hain zuzen, ezohizko Lehendakaritza Batzordea deitzeko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du hau da dagoena. Orduan, onartu edo errefusatu beharko duzue.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du bere taldeak abalatzeko duela Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, eta harriturik dago, 3 eguneko epean hitz egiten ari diren kontuez iritziz aldatu direlako. Etorkizunean neurtzeko metro berdina ibiliko dela espero du. Horregatik, Udalbatzara ekartzen diren proposamenak idatziz egiteko, eskatu du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Jarraian, eta gehiengoak presazkoa aitortu ostean, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak, PP, EA) eta 5 abstentzioz (Talde Mistoak), ondoko gaia Gai Zerrendan sartu dute:

4. Gipuzkoako udalei laguntzeko egitasmoan sartu beharreko proiektuen onespina.

* Burgos jaunak (EA) adierazi du Plangintzak Udalarentzat ahalegin bat egitea suposatuko duela, eta hori ez dela erraza dauden egoera ekonomikoan egonda. Bere aburuz, Alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) egin duen planteamendua, ikusirik nolakoa den egoera ekonomikoa, une honetan egin litekeena da, nahiz eta Aldundiak aukera gehiago ematen zizkien. Beraz, bada, zeukaten denbora eskasa edukita, ezin izan dute gehiago egin. Izan ere, egoera denentzat zaila bada ere, uste dute plan honekin 8 lan postu horiek betetzen dituztenena zertxobait arinduko dela.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) esan du, lehen adierazikoaren ildotik, euren ez datoz bat Alkateak baliaturiko prozedura eta iritzi aldaketarekin. Eta proposamena idatzita ikusten ez duten bitartean ezin dute aldeko bozkarik eman. Eta horrexegatik abstenituko dira.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berari osoko bilkura hasi denean eman diotela proposamena. Horregatik, ez du inolako eragozpenik zinegotziei berorren kopia emateko.

Une horretan Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), goizeko 9:00ak zirela, hamar minutuko etenaldia baimendu die zinegotziei proposamenaren kopia banatzeko.

Gero, 9:10 zirela, berriro bilkurari hasiera eman diote.

2009ko maiatzaren 19ko 13/2009 Foru Dekretu bidez, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearren Gipuzkoako udalei laguntzeko programa onartu zen, eta kudeatzeko baldintzak ere araututa geratu ziren.

Gizarte politikari erantzuten dion programa honek, udalei laguntza eman nahi die, herriko langabezi mailaren arabera, langabetuak kontratatu eta langabetuek udal eskumeneko zerbitzuak indartzeko lanak behin-behinekotasunez egiteko.

Programa hau kudeatzeko ildo nagusiak honako hauek dira: batetik, langabezia laguntzarik edo prestaziorik jasotzen ez dituztenengan eragitea, beti ere familia kargak izanik eta eskaintzen den postua betetzeko beharrezkoa den ezagutza dutenak. Eta bestalde, enpleguan hobekuntza bermatzea, udal zerbitzuetako kudeaketari dagokion berezko jardueretan.

Hori dela eta, udalerriko langabezi tasa hobetzeko asmoarekin eta lorazaintzako eta obra-lanak egin eta administrazio lanei erantzuteko xedez, udal teknikariek hiru plan diseinatu dituzte. Lehena lorategiak hobetu eta zaintzeko, bigarrena hiribarnea egokitzeko eta, hirugarrena, berriz, administrazio-zerbitzuak indartzeko.

Giza Baliabide Saileko ordezkariaren proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Burgos jaunak (EA) adierazi du falta den gauza bakarra Bozeramaileen Batzordean esan zen zerbait dela (Talde Mistoko ordezkariak azpimarratua, Enpresa Batzordeko ordezkariak ere eskatua eta talde politikoen artean hitz

egina). Hau da, Enpresa Batzordea eta Giza Baliabide Saileko ordezkarien artean kontratazioko irizpideak erabakitzea, beti ere, Aldundiak ezarritako irizpideak eta Udaletik atera litezkeenak, gehi Udalean lantzen ari den Berdintasun Planak marka ditzakeenekin (beste udal taldeetako ordezkariekin hitz egindakoa) hobetu ditzaketela kontuan izanik.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du, tarteka, edukia bezain garrantzitsuak izaten dira jarduteko moduak. Izan ere, edukiarekin eta egin den proposamenarekin bat etor badaitezke ere, deigarria gertatzen zaie proposamenak bezperako data izan eta gaur jakitea, eta hori, proposamena idatziz emateko eskatu dutelako. Eurek ez dute ulertzen zergatik ez zuten proposamena bezperan banatu. Bestalde, berak interesgarritzat jotzen du proposamenaren inguruan Udal honetan zerbait esateko duten guztiak entzutea. Ikusten denez -dio- ez da ahalegin hori egin, eta beraz, abstenituko dira, hain zuzen, ez direlako inolaz ere errespetatu jarduteko moduak.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du osoko bilkuran daudela eta bertan daude eta hitz egin dezake nahi duen guztiak. Ondoren, Ferradas jaunari (Ezker Batua-Berdeak) galdetu dio, ea sinetsiko dion proposamena osoko bilkura hasi ostean irakurri duela esaten badio. Jarraian, Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) baiezkoa esan dioenez, eskertzen duela esan du. Hori horrela, gauzak bere lekuan jartzearen, ez Ferradas jaunak, ez berak, ez zuten idatziaren berririk. Jarraian, gai honekin presaka ibili badira, afera honen inguruan lana egin behar dutenetatik zenbait bajan daude, beste batzuek oporretan, etab. da. Horrelako ezustekoak izaten dituzte, baina ez du uste mintzatu diren zinegotziek horrelakorik izaten dutenik. Eurek, ordea, hogeita minuturo izaten dituzte horrelakoak. Bakoitzari egitea tokatzen zaiona da, nahiz eta eskubide osoa duten ematen dituen azalpenak ez konprenitu edo ez onartzeko, gaineratu du.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) adierazi du edukiarekin ados egon litezkeela, beti ere, EAko ordezkariak esan duen moduan -han ez delako aipatzen-, kontratazioak irizpideak, berdintasun plana, etab. kontuan hartuz egiten badira. Alkateak esan du sindikatuek eta Pertsonal arloko buruak batzorde berezi bat osatuko dutela, baina proposamenean ez da horrelakorik jasotzen. Horregatik, berriro ere konfiantzazko botorik ezin dutenez eman, eurek ere, abstenituko dira.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eskatu du nahiz eta proposatzen duena ez onartu, gutxienez entzuteko, izan ere, esan, hasieran esan baitu Pertsonal departamentuak eta sindikatuek egingo

dutela kontratazio hauen balorazioa Aldundiak berak ezarritako irizpideei jarraiki.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) esan du lehen entzun diola, baina idatzian ez dela horrelakorik jasotzen.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak, PP, EA) eta 7 abstentzios (Talde Mistoa eta Ezker Batua-Berdeak),

E R A B A K I D U

1.- **Onartzea** ondoren aipatzen diren proiektuak, guztirako zenbatekoa 182.542,81 eurokoa izanik eta ondoren aipatzen den moduan desglosatua:

- Baso, parke eta lorategiak hobetzeko eta zaintzeko. Aurreikusten den kontratazioa: 4 peoi lorazain egun osoz eta 6 hilabetez. Guztira: 48.170,24 euro, horrela banatuta: 39.230,24 euro lansaria eta 8.940,00 euro bestelako kosteak.
- Aita Donostia kalea eta ingurua berriro urbanizatzea. Aurreikusten den kontratazioa: ofizial 1 eta 2 peoi igeltsero egun osoz eta 6 hilabetez. Guztira: 124.565,01 euro, horrela banatuta: 31.493,92 euro lansaria eta 93.071,09 euro bestelako kosteak.
- Zerbitzu administratiboen errefortzua. Aurreikusten den kontratazioa: telefonista 1 egun osoz eta 6 hilabetez. Guztira: 9.807,56 euro (lansaria).

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari **eskatzea** adierazitako postuen aldi baterako kontrataziorako ezarritako finantziarioa Gipuzkoako udalei laguntzeko programaren gain. Guztira 72.000 euro, kontratazio bakoitzeko 9.000 euro hain zuzen.

3.- OARSOALDEA garapen agentziari **ematea** proiektuen kontratazioa eta kudeaketa lanaren ardura.

4.- Gastua egiteko baimena ematea indarrean dagoen Aurrekontuko I eta II Kapituluari dagozkien aurrekontu-partiden kargura.

Jarraian, Queralt jaunak (Talde Mistoak) adierazi du, Alkateak presazko bidea baliatuz proposatu duen eran, euren ere nahi dutela bozeramaileei eman dieten proposamena bozkatzea.

Jarraian, gehiengoak presazkoa aitortu ostean, aldeko 17 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Talde Mistoak, EAJ/PNV, Ezker Batua-Berdeak eta EA) eta aurkako boto 1 (PP), ondoko gaia Gai Zerrendan sartu dute:

5.- Mozioa: Talde Mistoak herriko seme-alaben argazkiak Herriko plazatik Ertzaintzak kendu dituelako salatuz aurkezturikoa.

Talde Mistoak, Ertzaintzat herriko seme-alaben argazkiak Herriko plazatik kendu dituelako salatuz, ondoko mozioa aurkeztu du:

"Itsasne Alvarez de Eulate Lasa, Santi Angulo Martin, Agus Cano Cereijo, Iñaki Queralt Coira eta Gorka Maudes Migeltorenak Udal honetako Talde Mistoko zinegotziok Udalbatzari proposamen bat egin nahi diogu:

AURREKARIAK

Azkeneko urteetan zehar herriko Plazan egon diren herriko seme-alaben argazkiak asteazken goizean kendu zituen Ertzaintzak.

Preso hauek denok bizi dugun gatazkaren ondorio dira. Haien argazkiek gatazka politikoa bizi dugula ez ezik, eguneroko lanean egoera hori gaitzitze aldera jardun behar dugula ere gogorarazten digute, herritar guztiontzat askatasuna lortuko badugu.

Gatazkaren adierazpentzat har daitekeen aipatutako gertaera horrek ez du konponbiderako urratsik suposatzen.

Garaiak errazak ez badira ere, gainontzeko eragile politiko eta sozialen moduan, Udalak ere dagozkion esparruetan aurrerapausoak ematea ezinbestekoa da.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzari ondoko akordioa hartzea **ESKATZEN DIOGU:**

1.- Udalbatza honek asteazken goizean Ertzaintzak Herriko Plazatik herri honetako seme-alaben argazkiak kendu izana salatzen du.

2.- Herriko preso hauek bizi dugun gatazka politikoen ondorio dira. Udaleko ordezkari guztiok gatazkaren konponbiderako bide guztiak martxan

jartzeko konpromisoa berresten dugu, irtenbide demokratiko bat emateko gure prestutasun osoa adieraziz.

3.- Udalbatza honek bertan erabakitakoa zabalduko die herritarrei eta bertako komunikabideei.

Jarraian, mintzatu dira:

* Burgos jaunak (EA) adierazi du berari deigarria egiten zaiola kontu hori osoko bilkurara ekartzea, jakinda zein egoeratan dauden azken egun horietan. Gainera, oso deigarria egiten zaio egoera askozaz larriago baten aurrean, erantzun berdina ez eman izana une hartan bertan pleno-aretoan dauden zenbaitek. Bere irudiko, hasteko, askozaz larriagoa da pertsona baten heriotza argazki batzuek kentzea baino. Bigarrenez, ez berak ez bere taldeko inork ez du inolako erantzukizunik ez argazkiak jartzeko garaian ezta kentzekoan ere. Gainera, ez diete sekula baimenik eskatu, ezta deitu ere, kartela jartzeko garaian, eta beraz, kentzeko garaian ez liekete erantzukizunik eskatu behar, ezta iritzirik ere. Hots, ez dute erabakirik hartu kartelak ipintzeko orduan eta ez dute hartuko kentzeko garaian ere, errepikatu du. Horrezaz gain, mozioan une hauetan herriak bizi duen egoerari irtenbide demokratiko bat emateko hitz egiten da, bere aburuz, ordea, bizitzeko eskubidea errespetatzea baino irtenbide demokratikoagorik ez dago, eta bizitzeko eskubidearen aurrean jarrera argi eta garbi bat hartzeko gauza ez diren bitartean, une hartan hitz egiten ari direnaz aritzea ekintza efektista baino ez da beretzat. Bere iritziz herri honek ez ditu ekintza efektistak behar, efektiboak baizik. Eta benetan demokratikoki hitz egiten hasteko, hasteko sekulan ez zuketean kontu hartaz hitz egin beharko, ezta indarkeriaz, ezta atxiloketaz, ezta basakeriaz, atentatuz, baina guztiaren gaintetik, giza heriotza suposatzen duen ekintza bakar batez ere. Jakin badaki gogorra dela esango duena, baina erailketa baten aurrean pasibitate osoan egoten direnez, eta berak ez duenez inolako erantzukizunik kartela ipini eta kentzeko orduan, ba, mozioaren aurka bozkatuko du.

* Alvarez de Eulate andreak (Talde Mistoa) adierazi du mozioa aurkeztu dutela asteazken goizean Autonomia Erkidegoko Poliziak herri honetako preso politikoak azaltzen ziren panel bat kendu zuelako. Panel hori hor egon da urteetan eta, bere aburuz, bizitzen ari diren gatazka politikoaren adibide bat gehiago da. Gaineratu duenez, mozio aurkeztu dute, alde batetik, herri honetako presoen argazkiekin panelaren kenketa salatzeke, eta bestetik, Udalak aukera izan dezan nabarmentzeko bizi duten gatazkari irtenbide demokratiko bat ematekoaren aldeko dela, izan ere, ezin baita ukatu herri honek gatazka politiko bat bizi duela. Aldi berean, gainontzeko zinegotziek aukera izan dezaten euren iritzia adierazteko ere

aurkeztu dute. Izan ere, eurek nekatuta daude azpimarratzen prozesu demokratiko baten alde daudela, eta oso ados daude –Burgos jaunak (EA) esan duen moduan– indarkeria eta ekintza mota guztiak desagertu behar dutela esaten denean. Uste du lehenengoak izango liratekeela mahai batean esertzeko gatazkaz hitz egiteko eta gatazkari irtenbide bat emateko. Burgos jaunari (EA) esan nahi dio bera ez litzakeela ausartuko zer den larriagoa esatera, zeren eta, Burgos jaunarentzat gauza bat bestea baino larriagoa izan badaiteke ere, jende askorentzat ez dira diferenteak. Burgos jaunak erailketa planteatu du, baina berak duela bi hilez desagertuta dagoen euskal errefuxiatu Ion Antzaren kasua azal diezaioke. Burgos jaunak erailketak bezain ekintza larri batzuen aurrean izaten den pasibitatea aitatu du, berak, aldiz, aitatu diezaioke ia-ia alderdi politiko guztiek duten pasibitatea errefuxiatu politiko baten desagertzea dela eta. Lehen Burgos jaunak aitatu duenaren inguruan, berak hainbat erailketa aipa ditzake, beste hainbeste eraso, etab. etab. Halaber, erantzun diezaioke atxilotetaz, preso politikoaren eskubide ezaz, dispertsioz, etab.ez. Eta hori guztia, hots, bai Burgos jaunak adierazitakoak, hala nola berak esandakoak, aspaldidanik herriak bizi duen gatazkaren ondorio dira. Bi aldeek bizi duten sufrimendua da, eta bi aldeek prest egon beharko zuketen hitz egiteko, gaineratu du. Amaitzeko esan behar du bera prest dagoela eta baieztatzen du oso prest dagoela esertzeko, hitz egiteko eta negoziatzeko gatazkari irtenbide demokratikoa ematearren. Ondoren zera galdetu du: Zuek prest al zaudete?

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du arazo bat dagoela, alegia, hitz egin behar denean ez da hitz egiten, eta hitz egiten denean ez dirudi gauza gehiegietarako balio izaten duenik. Bera pitin bat ernegatuta dago antzeko gaiak ikusteko saiakeraz, ikusten baitu zer nolako eraginkortasuna izaten duten. Uste du, gainera, gatazka politikoa baldin badago, alderdi politikoek konpondu beharko dutela. Bestalde, ez da egia areto hartan esan den guztia. Eta, berriro dio, gatazka politikoak alderdi politikoek ebazten dituztela. Bakoitzak bere balio-eskala edukiko du, baina beretzat guztien gaineratik dago bizitzekoa. Gizarte sano batek –ez soilik demokratikoak– ez dezake jasan heriotza bat, hori denak usteltzen dituen min bizia delako. Gatazka politikoak konpondu nahi badira, hitz eginez izango da, ez hilez, nabarmendu du. Mozioari buruz – ez duelako ezertan eskurik hartu– ez du ezer esateko. Berak soilik esaten du Legearen arabera jardun dela eta hori ondo dagoela. Amaitzeko bere taldeak aurka bozkatuko duela, esan du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 5 botorekin (Talde Mistoak) eta aurkako 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Ezker Batua-Berdeak, EAJ/PNV, PP y EA),

E R A B A K I D U

- Atzera botatzea Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

6. Galderak eta eskariak.

Ondoko galdera-eskariak egin dituzte:

* Queralt jaunak (Talde Mistoak) adierazi du galdera batzuk dituztela egiteko, hots, idatziz aurkezturikoak eta han bertan egin asmo dituztenak.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du lehenik Queralt jaunak (Talde Mistoak) idatziz eginikoa erantzungo duela. Hala, frogatu ahal izan du, dagokion sailean, galderaren inguruan lanean ari direla. Era berean, frogatu du lana ez dutela bukatu eta gai horiek bideratzen dituen oporretan dagoela, alabaina, badaki kontu horrekin lanean ari direla. Kontua argitzearen edo, antenen ordenantzari buruz hitz egiten ari dela esan du. Amaitzeko, aldaketak edo aurrerapenak edo ematen badira, jakinaraziko diela, gaineratu du.

* Queralt jaunak (Talde Mistoak) adierazi du pozten dela gai honen inguruan lanean ari direla jakiteak, baina ordenantzak oso zehazki dio epe barruan egokitzapenak ez badira egiten antenak desmuntatu behar direla. Gainera, harrituta dago nola batzuetan Alkatea oso zorrotza den legea aplikatzeko garaian, eta bestetan, zein malgua.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ahal dutena egiten dutela, erantzun du

* Cano andreak (Talde Mistoak) adierazi du bere izenean ere eskari bat aurkeztu zuela. Orduan, jakin nahi du ea orain erantzungo dion, edo, hurrengo bilkuran. Talde Mistoak, bere izenean, Alkateak Idazkariari txosten bat egiteko agindua eman ziezaion eskatzen zuen. Gaia Tokiko Organoen eskumenak zehaztea eta bereiztea zen, gaineratu du.

* Alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, oker ez banago, atzo edo herenegun eman zitzaien sarrera idazki horri, eta berak, ez du denborarik izan ezer egiteko.

* Ferradas jaunak (EB-Berdeak) adierazi du hainbat galdera dituela egiteko. Lehenengoa, hilaren bostean, ostiralean, Eskoletako Agenda 21 zela eta, biltzar-areto hartan bertan "Udal-eskolen batzarra" definizio pean ekintza bat burutu zela. Bertan herriko bost eskoletako ikasleak eta irakasleak izan ziren, eta berak jakin nahi du ea zergatik ez zen gonbidatua izan udal talde bakar bat ere.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du arrazoi xume batengatik: Eskolako Agenda 21ean aurreikusten den moduan, hainbat ekintza kanpoan burutzeko pentsatua zegoen. Geroago, Alkateari aurkeztu behar ziotela iragarri zuten. Bere iritziz, batzarra hitza erabili bazuten, didaktika aldetik izango zen, baina, bere aburuz, ez zen ez batzar ezta antzeko ezer ere izan.

* Ferradas jaunak (EB-Berdeak) adierazi du erakutsi zituzten afixetan horrela azaltzen zela.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du bera ez dela horren erantzule. Izan ere, berak ez du izen hori jarri, ezta erabili ere.

* Ferradas jaunak (EB-Berdeak) adierazi du bere taldeak errekonozitzen duela Zumardiko komunaren inguruan hartutako erabakia ona dela, hau da, ireki eta garbi edukitzearren pertsona bat kontratatzea. Berak jakin nahi du, ordea, ea garbitasun eta mantenimendu bera egingo den Fanderiako komun publikoan.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, hasteko, Fanderian lan horiek instalakuntzaren ustiapena eramaten duenak egin behar dituela. Hortaz, espero du baietz, baina ez dute inor kontratatzeke asmorik. Zumardikoa Gizarte Zerbitzu Sailaren ekimena izan da, eta berari bidezkoa iruditu zaio. Hala ere, uste du gaur egun oso arraroa dela komun publiko bat kasu egiten dion langilearekin aurkitzea.

* Ferradas jaunak (EB-Berdeak) galdetu du kasu hipotetiko batean udal arduradun batek "udal" adierazpena erabili eta hori TAO eta Garabia zerbitzuak ematen dituen enpresa ez dela GKE bat esateko baldin bada, jakin nahi du ea zer iruditzen zaion Alkate jaunari udal arduradun batek adierazpen mota hori aitatzeari.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du berak -Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) ongi aski dakien moduan- ez duela zuzenean jakin eta ez daki zein testuingurutan esan zen. Gaineratu du, hori baino gehiagorik ez badu esaten, adierazpenarekin bat datorrela, hots, enpresa pribatu bat ez dela GKE bat, alegia. Berak ez daki horrek gutxiespen izaerarik duen, baina ez dagokio berari, berak ez duelako parte hartu eta ez zaiolako informaziorik eskatu. Denek badakite enpresa pribatu bat ez dela GKE bat. Beraz, asko jota, erredundantzia akusatu liteke. Uste du ez dela intentzio txarrez erabili, ezta GKEak mintzeko asmoz. Gainera, pentsatzen du kontu hori ez dagokiola Alkateari, eta, are gutxiago Udalbatzari.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du bat etor litezkeela esaldi horrek enpresa pribatu batean izan dezakeen eraginaren inguruan, baina, jakina, enpresa horrek interesa du dirua irabazteko herriko zerbitzu zenbaitetan. Jarraian, Alkate jaunari gogorazi dio azken batzarrean bere taldeak planteatu zuen nola, TAO-zerbitzuko zainzaile batek eskatuta, oso denbora laburrean garabiak auto bat eramanez zuen. Horregatik, berari ez zaio zaila iruditzen lehen aitaturiko kasu horrekin, beharbada, deskuidatuta erlazionatzea. Alabaina, zerikusirik ez badu, berak errekonozitzen du deskuidatu dela lehen esandako esaldian, eta aitatzeari ari diren kasuan.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du enpresak dirua irabazteko sortzen direla, ez zorrak egiteko. Garabiaren aferaren berari oso normala iruditzen zaio diligentziaz jardutea. Eta zera galdetu dio: pentsatu al du noizbait zenbat ordu galtzen den auto bat erretiratzeko? Esaterako, ordu asko galtzen ditu zaborrak biltzeko zerbitzuak autoak gaizki aparkatuta egoten direlako. Garabia horretarako dago, gaizki aparkatuta dauden autoak erretiratzeko, gaineratu du.

* Angulo jaunak (Taldea Mistoa) adierazi du hasieran aitatu duela Listorretako autobusaren kontua. Orain jakin nahi du ea kentzeko erabaki gogorra hartu beharrean ezin zitekeen beste motatako erabakiren bat hartu. Eta zeintzuk izan diren arrazoiak.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du gai horiek ez dituela batzarrean erantzungo. Informazio-batzordera jotzeko esaten dio. Halere, aurrera diezaioke – ziur aski Angulo jaunak (Talde Mistoa) jakingo duen moduan– zerbitzu hori kendu dela ez zelako ia-ia inor ibiltzen; bidaiako hiru lagun baino gehiago ez, gaineratu du. Gauza bera gertatu zen industria-poligono batera ezarritako autobusarekin, sei hileren buruan, milaka euro galdu ostean, kendu behar izan zuten, batz bestea bidaiako, lagun batera ere iristen ez zelako. Errealitatea egoskorra da, gehitu du. Beharbada jendeak garraio publikoa gehiago erabil dezan kanpainak egin beharko dituzte, hain zuzen pentsaerak eta ohiturak aldatzeko. Edonola ere, kontu hori ez da batzarrean ikustekoa, esan du. Beraz, arren eskatzen dio mota horietako zalantza edo arazoak batzordean azaltzeko.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) adierazi du, bere ustez, Alkateak esan moduan ari dela jarduten. Orduan, jakin nahi du, ea zergatik lehen Gizarte Zerbitzuetan zegoen gai bat orain Alkatetzaren eskuetan dagoen. Udalarekin kolaboratzen duten GKEei ematen zaizkien diru-laguntzez ari da. Ondoren, ea noiz ipiniko den abian laguntza horiek emateko deialdia, eta nor arduratuko den kontu horretaz, galdetu du. Zeren uste baitute espediente horien inguruan lan egiteko teknikariak, langile adituak, etab. beharrezkoak direla. Gaineratu duenez, Alkatetzak bere menpean hiru lagun ditu, baina ez du uste lan mota hori egiteko pertsonarik egokienak direnik.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, kontu horren aurretik 2008ko aurrekontua luzatua badute ere, behin-betikoa ez dute onartua. Aurrekontuarekin arazo handiak dituzte, aholkatzen dituen enpresarekin aztertzen ari direnak. Aldundiko Ogasun Sailarekin eginiko bileratan bide horretatik jotzeko aholkuak eman dizkie hots, ohiko gastuak murrizteko. Ondoren, oraindik aurrekontua koadratzeko soluziobiderik ez dutela aurkitu, esan du. Ondorioz, partida asko murriztu behar dituzte, eta horrexegatik, ez daki Queralt jaunak (Talde Mistoa) aitatu duen partida horretan –eta beste askotan– zenbat diru ipiniko duten. Beraz, ezin dute deialdirik egin, hain zuzen, ez dakitelako Udalak horretarako zenbat izango duen. Izan ere, dituzten baliabideak dituzte, eta inor ez da gauza mirariak egiteko. Halere, horretan dihardute. Gutxi dela esan diezaiokete, baina zerbait jarriko dute, nahia behintzat badute, denek dakitelako egoera nolakoa den.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) adierazi du berak ere bat egiten duela kezkarekin, baina uste du ulertu duela partida hori desagertu ere egin daitekeela.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du berak ez duela hori esan, eta ez litzaioke hala izatea gustatuko.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) galdetu du, ea hori aukeren artean dagoen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du onartzen diola. Edonola ere, ez du nahi baieztapen hori partida kentzeko zentzuan hartzea. Egia da -dio- partida hori eta besteak berrikusten ari direla.

* Queralt jaunak (Talde Mistoa) diru-kontuetatik aparte, nola kudeatuko den, galdetu du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ez dakiela erantzun du. Hasiera batean, Gizarte Zerbitzuak Alkatetzak bereganatzeko proposatu zuen. Eta zoritxarrez, lehen ere aitatu du, ezin izan dute aurrera jo. Orain arazoa ez da nola iritsiko diren konklusio batzuetara, prozesua nola hasiko duten baizik. Bera ere kezkatu dago, ez daki nondik jo eta.

Jarraian, Alkate jaunak, Udaleko sindikatu-partaideekin eztabaidan aritu bada ere, bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:50 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.